



KORONABIRUSAREN AURREAN (SARS-CoV-2) JARDUTEKO PROTOKOLOA, FLOTARAKO, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIETARAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIETARAKO

Protokolo irekia da, eta eta COVID-19aren bilakaeraren arabera informazio, gomendio edo jarraibide

berriak gehituko zaizkio

(azken eguneraketa 2020/03/23koa_3.0 BERTSIOA)



AURKIBIDEA

- 1. SARRERA**
- 2. HELBURUA**
- 3. ERANTZUKIZUNAK**
- 4. JARDUTE PROTOKOLOAK**
 - a. ARRANTZA ONTZIAK**
 - b. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK**
 - c. ELIKAGAIEN INDUSTRIAK**
- 5. ERREGISTROA**
- 6. ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZIOA**



1. SARRERA

SARS-CoV-2 koronabirusa Coronaviridae familiako birus bat da. Arnasbideetatik transmititzen da pertsonatik pertsonara, arnasketako sintomak (eztula eta doministikuak) dituen gaixoak botatzen dituen 5 mikra baino gehiagoko arnasketa tanten bitartez eta fomiteak ukituz (arropa, oheko izarak, ospitaleko ekipamendu esterilizatu gabea, etab.). Ez dago frogatuta aire bidez transmititzen denik, hau da, tantatxoek nukleoak edo aerosolen bitartezko transmisioa gertatzen denik, horiek 2 metro baino distantzia handiagoa transmititu baitaitezke. Inkubazio aldia 2 eta 14 egun artekoa da.

Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza (EFSA) koronabirus gaixotasunaren agerraldiaren egoera zaintzen ari da. Gaur egun, baieztatu denez, ez dago ebidentziarik elikagaiak birusaren transmisio iturri edo bide probablea direnik. Mundu osoko zientzialariak eta agintaritzak birusaren zabalkundea monitoreatzen ari dira, eta ez dute elikaduraren bitartezko transmisioari buruz inolako txostenik egin. Bukatzeko, elikagaien kaltegabetasunari dagokionez, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) kontuz ibiltzeko gomendio batzuk igorri ditu, bai eta elikagaian manipulatzeko eta prestatzeko jarraitu beharreko higiene jardunbide egokietarako aholkuak ere, hala nola eskuak garbitzea, okela ondo kozinatzea eta elikagai egosien eta egosi gabekoak arteko kutsadura gurutzatu posibleak saihestea.



2. HELBURUA

Elikagaien hornidura funtsezko jarduera da, eta garrantzitsua, eta bermatu egin behar da, bereziki osasun larrialdiko egoeran, herritarrei oinarritzko eta funtsezko zerbitzua eskaintzeko, eta gizarteari lasaitasuna helarazteko, oinarritzko elikagaien iturri seguru eta nahikoak edukita.

Ondorioz, **elikagaien ekoizpen eta hornidura katearen funtzionamendua eta operatibitatea bermatu behar da**. Helburu nagusia da, beraz, **pertsonen osasuna bermatzea, katearen maila guztiek beren jarduera betetzen jarraitu ahal dezaten**. Horregatik, erantzukizunez jokatzeko deia egin nahi diegu elikadura esparruko balio kateko pertsoneri eta enpresei (ontziak, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategiak, elikagaien industriak, elikagaien garraioa, logistika eta garraioa, eta elikagaiak merkaturatzeko establezimenduak) arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen eta kutsatzea saihesteko.

Hauek dira jardute protokolo honen helburuak: 1) **pertsonen osasuna bermatzeko** neurrien ezarpena; 2) birusaren **zabalpenaren kontrola**; 3) agintariek gomendatzen edo ezartzen diren neurri sozialen **osagarria izatea**; eta 4) **Jardueraren eta elikagaien horniduraren jarraipena bermatzea, biztanleriari oinarritzko eta funtsezko zerbitzua emateko**, bai eta ahalik eta lasterren normaltasunera bueltatzeko eta inpaktu ekonomiko larria ekiditeko beharrezkoa den erresilientzia ere.

3. ERANTZUKIZUNAK

Ez dago agente erantzule zehatzik, elikaduraren balio kateko agente guztiek – erakundeek, herritarrek, komunikabideek, enpresek eta herritarrek– **ERANTZUKIDETASUNEZ** jardun behar dugu, xede komun batekin, kutsadura arriskuak minimizatzeko xedearekin, alegia. Kide bakoitzak kateko zati batean dauka erantzukizuna, azken helburua izanik COVID-19 birusa zabaltzea ekiditea.

Era berean, elikaduraren balio kateko agente guztiok erantzukizun berezia daukagu Euskadiko herritarrei elikagai seguruak eskaintzeko, eta behar besteko kopuruan.



Horregatik, enpresek egokitu eta ezarri behar dituzte Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak ezartzen dituen neurriak, dokumentu honetan jasotako babes gomendioak eta osasun alorreko agintaritzek etorkizunean erabaki ditzaketenak. Elikagaien edozein enpresa edo ustiatagitarik langileek, berriz, gomendioak arreta handiz bete behar dituzte eremu profesionalean edo pribatuan.

Kontuan izanda birusarekiko kontaktuak ekoizpeneko inguruneen zein ekoizpenekoak ez direnei eragin ahal diela, **enpresei dagokie espozio arriskua ebaluatzea eta prebentzio zerbitzuak arrisku horretarako ematen dituen gomendioak jarraitzea**, osasun alorreko agintaritzen emandako jarraibideak eta gomendioak betez.

Edozein babes neurrik bermatu behar du langilea ondo babestuta egotea bere osasunak eta segurtasunak eduki ditzaketen eta ekidin ezin diren arriskuetatik, edo babes kolektiborako bitartekoak erabiliz edo lana antolatzeko neurriak hartuz arrisku horiek nahiko mugatuta egotea. Informazioa eta formazioa funtsezkoak dira ikertzen ari diren edo berretsita dauden kasuekin harremanetan dauden pertsonen babeserako eta birusarekiko esposizio arriskua dutenen babeserako. Kontuan hartu behar da babesaren dimentsioa langilearengandik haratago doala eta kasuarekin zuzeneko edo zeharkako harremana eduki dezaketen gainerako pertsonak ere sartzen direla.

Enpresen arduradunei eskatzen zaie itsasontzietan, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatagietan eta elikagaien industrietan jarduerari eusteko funtsezkoak diren pertsonak eta azpiegiturak identifikatzeko eta kontingentzia planak aurreikusita edukitzeko, gaixotasunak eragindako baja posibleei edo derrigorrezko berrogeialdien ondorioz absentismoan egon daitekeen gorakadari aurre egin ahal izateko, bai eta ordezkoko piezen hornidura eta funtsezko hornitzaileei laguntzeko zerbitzu nahikoak izateko ere, funtzionamendu normalerako. Ezartzen diren babes mailak eta neurriak jardueren izaeraren eta langileentzako arriskuen ebaluazioaren arabera egokitu eta aplikatu behar dira.



Babes berezia behar duen kolektibo baten parte denez, langileek hirugarren pertsonekin dituzten harremanak mugatu behar dituzte, eta soilik behar-beharrezkoak direnak eduki. Horrez gain, bakartze sozialerako indarrean dauden neurriak bete behar dituzte beti. Etxetik lan lekurako joan-etorriak banaka egingo dituzte, eta lan lekura sartu aurretik ziurtatu behar dute kutsadura sintomarik ez dutela.

4. JARDUTE PROTOKOLOA

Oro har, elikaduraren kate maila guztietan ezinbestekoa da:

- a) **Higiene pertsonaleko neurriak indartzea, lan eremu guztietan eta esposizioko edozein eszenatokiren aurrean.** Gomendatzen da:
- Eskuak garbitzea. Eskuak garbitzea da infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri nagusia.
 - Arnasketako etiketa:
 - Arnasketako sintomak baldin baduzu, eztul edo doministiku egitean aho eta sudurra estali beharko dituzu behin erabiltzeko mukizapi batekin, eta gero zabor edukiontzi batera bota. Paperezko mukizapirik eduki ezean, eztul edo doministiku egitean besoaren gainean egingo da, ukondoaren barruko angeluan, eskuak ez kutsatzeko.
 - Bat-batean eztulka hasiz gero eta nahi gabe ahoa eta sudurra eskuarekin estaltzen badira, saiatu begiak, sudurra edo ahoa ez ukitzen. Ondoren, eskuak ur eta xaboiez garbitu, edo oinarrian alkohola duten produktuak erabiliz.
 - Arnasketako sintomak dituen edozeinek eskuak sarri garbitu beharko ditu, ezustean sekrezioak edo sekrezioekin kutsatutako gainazalak ukitu ditzakeelako.



- b) Norberaren babeserako neurriak (baita **Norberaren Babeserako Ekipamendua (NBE)** ere), **egokiak eta lan jarduerari edo jarduera profesionalari dagozkion arriskuen aurrean eman beharreko babesaren araberakoa.**
- c) Ikertzen ari diren kasuetan, bakartze neurriak dira babeserako lehen hesia, bai kasu horretan dauden langileentzat, bai kasuarekin kontaktuan egon daitezkeen gainerako pertsonentzat.
- d) Babes elementu estrukturalen erabilera egokia, **ekoizpen instalazioetarako sarrera kontrolak eta langileen antolaketa neurriak eta berriz erabiliko diren laneko lekuak eta ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko politikak** ere prebentzio neurri garrantzitsuak dira.



a. ARRANTZA ONTZIAK

GOMENDIO OPERATIBOAK

Itsasontziak funtsezko zatia dira elikagaien hornidurarako katean, beraz, bere funtzionamendua eta operatibitatea bermatu behar da. Tripulazioa osatzen duten pertsonen protokolo honen puntu guzti-guztiak errespetatu eta aplikatu behar dituzte. Tripulazioko pertsona guztien erantzukizun pertsonal eta soziala funtsezkoa da arriskuak minimizatzeko eta kutsadura ekiditeko.

Tripulazioko inor gaixotasunak kaltetuta ez badago, ontzia hirugarren pertsonengandik isolatuta egoten uzten duen lekua da eta horrela mantendu behar da ahalik eta denbora gehien, mareak ahalik eta denbora gehien luzatuta, betiere itsasoko segurtasunak uzten badu, arrain sotoen betetze maila esanguratsua izateko behar besteko harrapaketak eduki arte edo harrapaketen kalitatea kaltetuta egon daitekeen unera arte kaian sartzea saihestuta. Autobabeserako neurriak arrantza ontziko patroiak erabakiko ditu, kasuan-kasuan, egoeraren arabera, eta tripulazioa mareen artean ez lehorreratzea ere erabaki dezake, beharrezkoa bada, tripulazioaren kutsadura ekiditeko.

Inguraketako arrantza ontziak eta Alturako Arrastekoak

Harrapaketa nahikorik ez badago, aurreko puntuan adierazi den moduan, ez da gomendatzen kaira bueltatzea eta itsasoan jarraituko da, adierazitako kupoa osatu arte.

Eguneko arrasteko arrantza ontziak eta arrantza tresna txikikoak

Beren jarduerak berak markatzen du egunero kaira sartu behar izatea. Arrantza ontzi mota honi gomendatzen zaio bere tripulatzailaiek higie-ne neurriak muturreraino eramán ditzatela eta protokolo honen gomendioak eta etorkizunean Osasun Sailak zehazten dituenak jarraitu ditzatela.



ITSASOKO PRODUKTUEN LEHEN SALMENTARAKO GUNEETAN HARTU BEHARREKO NEURRIEN GOMENDIOA

Euskadiko arrain lonjetan eta arrantzako produktuen lehen salmentarako gune baimenduetan jarduera garatzeko gomendioak.

Helburua da jarduera berme guztiekin mantentzea herritarren elikadurareko kalitateko lehengaien hornidura ziurtatzeko funtsezko establezimenduetan eta itsasoko arrantza jardueraren erausketa partearen funtzionamendurako:

- Oro har, jarduera presentzialak murriztuko dira, eta ahal den neurrian bide telematikoa eta telefonikoa erabiliko dira.
- Lokaletara sarrera zorrotz mugatuta egongo da, eta soilik loja bakoitzean baimendutako erosleak sartu ahal izango dira, bai eta saltzaileak edo haien ordezkari baimenduak ere.
- Debekatuta dago lonjako lanarekin edo arrantzako produktu freskoen salmentarekin zerikusia ez duten pertsonak sartzea lonjetara, eta lonjetako bisita turistikoak edo antzekoak bertan behera geldituko dira.
- Ezinbestekoak diren ahalik eta pertsona gutxien egongo dira enkanteak egiteko. Beharrezkoa izanez gero, enkante gehiago egingo dira enkanteak edo pisaketak mailakatuta antolatuz edo programatuz (posible eta beharrezkoa bada), une bakoitzean pertsona gehiegi elkartzea ekiditeko. Protokoloan ezarritako pertsonen arteko tartea aplikatuko dira
- Garbiketa eta desinfekzio maila areagotuko da, bai enkante geletan bai gainerako guneetan, eta salmenta eta biltegiratzeko gunea egunero eta enkantetik enkantera artean (goizean, arratsaldean eta gauean) desinfektatuko da oso-osorik.
- Ahal den neurrian, eskuak garbitzeko ontzi edo desinfektatzaileen banatzaile gehiago jarriko dira eskura, enkante eta pisaketa lekuetan.
- Administrazio bulegoetan jendearen arreta, ahal den neurrian, bide telematikoz edota telefonikoz egingo da.



ARRANTZATZEKO ETA KOMERTZIALIZATZEKO ARAUAK

Egoera luzatuz gero aldi baterako salbuespenak eskatuko lirateke harrapaketei, kuotei eta lehorreratze obligazioari buruzko arauetan, espezie batzuen kuotak lortzeak arrantza jarduera oro har mugatu ez dezan, itsas jatorriko proteinen hornidura bermatzeko.

ONTZIRA SARTU AURRETIKO KONTROLA

Kontuan izanda itsasontzia lan eremu txikia dela eta bertan ezin dela gomendatutako segurtasun tarteak mantenduta lan egitea bermatu, funtsezkoa da tripulazioko pertsonak lehorrean daudenean bakartze sozialerako indarrean dauden neurriak kontu handiz betetzea, hirugarren pertsonekin dituzten harremanak mugatuta eta soilik behar-beharrezkoak direnak edukita. Etxetik lanerako joan-etorriak bakarka egingo dira. Langilea sintomak dituen gaixo batekin kontaktu estua¹ eduki badu, ez da itsasontzira igoko eta berrogeialdia egingo du etxean, hamalau egunetan, eta sintomen agerpenaren jarraipen pasiboa egingo du. Arnasketako sintomak edukiz gero, ez da itsontzira igoko, harik eta koronabirusak eragindako infekzioa duela baztertu arte. Kasu horretan, langilea autobakartu beharko da bere etxean, bere lehen arretako medikuari kontsulta egingo dio, eta hark emandako jarraibideak beteko ditu, erabat osatuta egon arte.

Jarraibide horiek ez betetzeak berrogeialdia, bakartzea eta arrantza ontziko jarduerari utzi beharra ekar litzake.

- Horren guztiaren aurretik, lan arriskuen prebentziorako zerbitzuaren osasun arloak ebaluatu beharko du ea COVID-19 koronabirusak eragindako infekzioarekiko bereziki sentikorra den langilerik dagoen, eta langilearen sentikortasun bereziaren izaera ezarri eta prebentziorako, egokitzapenerako

¹ Kasu posible, probable edo baieztatuekiko kontaktu estutzat jotzen dira kasu horiek sintomak eduki dituztenean haiekin leku berean bizi izan direnak eta haien leku berean 2 metro baino gutxiagoko distantziara eta gutxienez 15 minutuan egon diren senideak eta pertsonak.



eta babeserako neurriei buruzko txostena igorri, bai eta lanerako gaitasuna baloratu ere. Horretarako, kontuan hartuko du ea langilearen osasun baldintzei bere dagokien arriskua handitu gabe lana egiten utziko duten baldintzarik dagoen ala ez.

HIGIENE PERTSONALA

- **ESKUAK SARRI GARBITUKO DIRA** (ur eta xaboiez), bereziki eztuk eta doministiku egin ondoren edo kutsatuta egon daitezkeen mukizapiak edo gainazalak ukitu edo manipulatu ondoren, aurrerago adierazten denaren arabera.
- Eztul edo doministiku egitean **estali ondo ahoa eta sudurra** ukondoarekin edo behin erabiltzeko zapi batekin, arnasketako sekrezioak atxikitzeko.
- **Erabili eta botatzeko diren mukizapiak** erabili, eta erabili eta gero bota berehala horretarako prestatutako ontzi batera.
- Azazkalak motzak eta zainduta eduki, eta saiatsu eraztunik, eskumuturrekorik, eskumuturreko erlojurik edo eskuak ondo garbitzea zaildu dezakeen bestelako apaingarriak ez erabiltzen.
- Saiatsu begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen, **eskuek transmisioa errazten dute eta**.
- Saihestu edozein kontaktu fisiko.
- Ahalik eta urrutien egon besteengandik ($\geq 1,5$ m), jarduerak hori ahalbidetzen badu.

**Koronabirus: ESKUAK BEHAR BEZALA
GARBITZEKO JARRAIBIDEAK****Coronavirus: INSTRUCCIONES PARA LAVARSE LAS
MANOS ADECUADAMENTE****ARRANTZA ONTZIAREN ANTOLAKETA ETA GARBIKETA**

- Behin erabiltzeko zapiak eta soluzio/paper zapi alkoholdunak eskura jartzea, bai eta oinarritzko informaziorako gun bat ere.
- Erabilitako mukizapietarako **edukiontzi itxi espezifikoak** jartzea. Gomendatzen da tapa duten edukiontziak/edukiontzi itxiak, eta edukiontziak irekitzeko/ixteko eskuz manipulatu beharrik ez izatea, oinarekin irekitzen diren edukiontziak izatea.
- **Maskarak** eskura jartzea, arriskuarekiko esposizioaren arabera erabakitzen diren pertsonen erabiltzeko.
- Instalazio komunak, eta igarotzeko eta erabilera pertsonaleko instalazioak **sarriago garbitzea**.
- **Hondakinak sarriago kentzea**. Kontu bereziarekin ibili, jarduera horretan, hondakinak eskuekin ukitzea ekiditeko.
- Sarri ukitzen diren **gainazalak aldian-aldian garbitzea**, esaterako eskulekuak, etengailuak, eskubarandak, eskailerak, etab.



- **Garbiketa agenteak** eraginkorrak diren beste batzuekin ordeztzea, hala badagokio.

Ohiko desinfektatzaileekin 5 minutuan kontaktuan egon ondoren gelditzen dira inaktibo birus horiek:

- Erabili beti disoluzio prestatu berria.
- Lixiba komertzialekin gomendatutako kontzentrazioak lortzeko:
 - ✓ 50g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml lixiba litro 1 uretan.
 - ✓ 40g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml lixiba litro 1 uretan.
- *Adibidez, "zopa koilara" bat 15ml-ren baliokidea da.
- Lixibarik erabili ezin den gainazalean etanola erabiliko da, %95eko kontzentrazioan.

- **Instalazio komunetan**, hala nola jantokietan eta atsedeen gunetan, **5 pertsona baino gehiago batera egotea ekiditeko** banaketa eta antolaketa, beti pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko tarte mantenduta. Baloratu ea txandarik antolatu daitezkeen edo zereginak planifikatu daitezkeen, pertsonen kontzentrazio handieneko jardueretan, hala nola lehorreratzean, pisaketa lanetan eta enkanteetan kontaktuak minimizatzeko.
- Arrantza ontziko pertsona guztien arteko **lankidetzarik handiena**, prebentzio neurriak hartzean eta segurtasun eta osasun batzordearen gomendioen jarraipena egitean.

KORONABIRUS KASUEN SUSMOAK EDO KASU POSITIBOAK:

- Tripulazioko norbait koronabirusak kutsatuta egon daitezkeen susmorik baldin badago, **bakartu egingo da eta adierazitako maskara jarriko du**, eta Irrati bidezko Medikuzko Zentroarekin **jarriko da harremanetan**. Beharrezkoa izango da ahalik eta informazio gehien biltzea azterketa epidemiologikorako.
- Irrati bidezko Medikuzko Zentroa arduratuko da ebakuazioa lehenbailehen egin behar den eta kasuaren jarraipena erabakitzeaz.



- Irrati bidezko Mediku Zentroak esanda tripulatzailereren bat bakartu behar bada, sarbide mugatua edukiko duen eta ahalik eta hoberen aireztatuta egongo den kamarote berezi batean sartuko da, eta ahal bada berokuntza edo hozkuntza sistemek eragindako behartutako korronteak egotea saihestuko da. Kamaroteko atea itxita egon beharko da bakartze denbora bukatu arte. Pazientea gune komunak erabiltzea ezinbestekoa bada, maskara kirurgikoa erabili beharko du, eta gelatik irten aurretik eta gelara sartu aurretik eskuak garbitu beharko ditu.
- Pazientearen erabilera eskusiborako komunik egotea normalean ezinezkoa denez, pazienteak erabiltzen duen komuna etxeko lixibarekin garbitu beharko da, behin erabili eta gero, erabiltzen duen bakoitzean.
- Gelaren barruan zakarrontzi bat jarri beharko da, pedalez irekitzen den taparekin, eta zakarrontziaren barruan itxitura duen plastikozko poltsa bat, hondakinak uzteko.
- Gomendatzen da norberaren garbitasunerako tresna indibidualak edukitzea, eta eskuak garbitzeko produktuak, hala nola xaboia edo soluzio hidroalkoholikoa.
- Arropa pertsonala, oheko arropa, toallak, etab. Pazientearen erabilera eskusiborako izan behar dira. Ezin dira erabilera pertsonaleko objektuak partekatu, hala nola hortzetako eskuilak, edalontziak, platerak, mahai tresnak, toallak, arropa, etab.
- Tripulatzaille guztiek eskuak ur eta xaboiez edo soluzio hidroalkoholikor garbitu behar dituzte, gaixoa edo gaixoarengandik hurbil dagoen gauzaren bat ukitu eta gero.
- Jana pertsona bakar batek emango dio, eta, horretarako, pertsona horrek maskara kirurgikoa erabiliko du, baldin eta gaixoa zaintzeko harengandik metro bat baino distantzia txikiagora egon behar badu. Behin erabiltzeko eskularru egokiak ere erabiliko ditu, baldin eta gaixoaren sekrezioekin kontaktuan egon behar badu. Erabili ondoren, bota egingo dira. Pertsona



horrek eskuak ur eta xaboiez edo soluzio hidroalkoholikor garbitu beharko ditu, gaixoa edo gaixoarengandik hurbil dagoen gauzaren bat ukitu eta gero.

- Gaixoaren oheko arropa eta toallak, esaterako, ohiko xaboi edo garbigarriekin garbituko dira, 60-90⁰ C-ko tenperaturan, eta lehortzen utziko dira erabat lehortuta egon arte. Arropa hori itxitura hermetikoa duen poltsa baten jarriko da garbitzeko unera arte. Saiatu arropa ez astintzen, garbitu aurretik.
- Behin erabiltzeko mahai tresnak, edalontziak, platerak eta gainerako tresnak ur beroz eta xaboiz garbituko dira, 50-60⁰ C-ko baino tenperatura handiagoan. Lehenengo tripulazioaren baxera garbituko da eta, azkenik, gaixoarena. Horretarako, aurretik ur berotan jarriko da beratzeko, garbigarriarekin. Gero, ondo garbituko da eta urez pasatuko da. Prozesua bukatuta, garbiketa egin duen pertsonak eskuak garbitu beharko ditu.
- Sarri ukitzen diren gainazalak (kamaroteko altzariak...), komuneko gainazalak eta komunzuloa egunero garbitu eta desinfektatu beharko dira, lixiba disolbatuta duen etxeko desinfektatzaile batekin (%5eko kontzentrazioa duen etxeko lixibaren zati 1 50 ur zatitan disolbatuta). Disoluzioa erabiliko den egun berean prestatuko da. Garbiketaz arduratzen den pertsona eskularrekin eta maskarekin (eskura badago) babestu beharko da. Garbiketa egin ondoren eskuak garbitu beharko ditu.
- Pazientearen hondakinak, baita gaixoa erabilitako behin erabiltzeko materiala ere (eskularruak, zapiak, maskarak), plastikozko poltsa batean deuseztatu behar dira (1 POLTSA) gelan jarritako zakarrontzi batean, birziklapenerako bereizketarik egin gabe, eta tapa daukaten eta pedalez irekitzen diren zakarrontziak lehenetsiko dira.
- Plastikozko poltsa (1 POLTSA) egoki itxi behar dira, eta bigarren poltsa batean sartu (2 POLTSA), kamarotearen irteeraren ondoan. Poltsa horretan utziko dira, halaber, zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara, gelatik irten aurretik behar bezala itxi eta gero.



- 2 POLTSA, aurreko hondakinekin batera, zabor poltsan utziko dira (3 POLTSA) etxeko gainerako hondakinekin batera. 3 POLTSA ere egoki itxiko da.
- Hori egin eta segituan, eskuak ondo-ondo garbituko dira, ur eta xaboiz, gutxienez 40-60 segundoan.
- 3 POLTSA soilik errefusarako edukiontzian utziko da, eta erabat debekatuta dago zabor bilketa bereziko edukiontzietan (zabor organikoa, ontziak, papera, beira edo ehunak) edo inguruan abandonatuta uztea.
- Prebentzio Zerbitzuaren osasun langileek kontaktu estuen ikerketa egingo dute.
- Prebentzio Zerbitzuaren osasun arloak kontaktu estutzat kalifikatutako pertsona hori direla jakinaraziko diote. Pertsona horiek ohiko lan jarduan egiten jarraituko dute eta sintomen zaintza pasiboa egingo dute. Behin lehorreratuta, etxean berrogeialdia egingo dute, kontaktua gertatu zenetik 14 egun igaro arte, eta horretarako aldi baterako ezgaitasuna eskatuko diote beren lehen arretako medikuari. Salbuespen moduan, baja hori Lan Istripuagatiko baja egoeraren parekoa izango da, soilik prestazio ekonomikorako.
- Kontaktua estuen zerrenda Osalanek kasuan kasuko lurraldean duen Lan Osasuneko Unitatera bidaliko du prebentzio zerbitzuaren osasun zerbitzuak.

KASU POSITIBORIK GERTATZEN BADA JARDUTEKO ETA INSTALAZIOAK DESINFECTATZEKO PROZEDURA

1. Arrantza ontziaren instalazioak desinfektatu egin beharko dira berriro erabili ahal izateko.
2. Garbitzaileak NBE egokiekin babestuta egon beharko dira.
3. Garbiketa eta desinfekzio prozesuan arreta berezia egingo zaie esposizio arrisku handiena eduki dezaketela baloratzen diren instalazioei, hala nola



komunei eta gune komunei. Soluzio desinfektatzaileen efektua instalazioetako gune kritikoetara iristea errazteko eta efektua ziurtatzeko, gomendatzen da aire bidezko dispertsiorako ekipiak erabiltzea (lainoztagailuak edo antzekoak)

4. Instalazioak desinfektatu ondoren berriro erabiltzeko prest egongo dira.



b. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO

USTIATEGIAK

LANEAN HASI AURRETIKO KONTROLAK

Erakundeko pertsona guztien arteko lankidetzarik handiena behar da, prebentzio neurriak hartzean eta ondoren emandako gomendioen jarraipena egitean.

Langileek **bakartze sozialerako** indarrean dauden neurriak kontu handiz bete beharko dituzte, kontaktuak mugatuta eta soilik behar-beharrezkoak direnak edukita. Etxetik lanerako **joan-etorriak** bakarka egingo dira, ezinbestez egin behar badira.

Langileak sintomak dituen gaixo batekin **kontaktu estua**² eduki badu, berrogeialdia egingo du etxean, hamalau egunetan, eta sintomen agerpenaren jarraipen pasiboa egingo du.

Arnasketako sintomak edukiz gero, ez da lanera joango, harik eta koronabirusak eragindako infekzioa duela baztertu arte. Gaixo badago, langilea autobakartu beharko da bere etxean, bere lehen arretako medikuari kontsulta egingo dio, eta hark emandako jarraibideak beteko ditu, erabat osatuta egon arte.

Hori ez egiteak berrogeialdia, bakartzea eta langile faltagatik jarduerari utzi beharra ekar litzake, eta horrek bereziki larria izan daiteke abeltzaintzako ustiategietan, abereen premiei erantzuten jarraitzeko premiagatik.

Horren guztiaren aurretik, lan arriskuen prebentziorako zerbitzuaren osasun arloak ebaluatu beharko du **ea COVID-19 koronabirusak eragindako infekzioarekiko bereziki sentikorra den langilerik dagoen**, eta langilearen sentikortasun bereziaren izaera

² Kasu posible, probable edo baieztatuekiko kontaktu estutzat jotzen dira kasu horiek sintomak eduki dituztenean haiekin leku berean bizi izan direnak eta haien leku berean 2 metro baino gutxiagoko distantziara eta gutxienez 15 minutuan egon diren senideak eta pertsonak.



ezarri eta prebentziorako, egokitzapenerako eta babeserako neurriei buruzko txostena igorri, bai eta lanerako gaitasuna baloratu ere. Horretarako, kontuan hartuko du ea langilearen osasun baldintzei bere dagokien arriskua handitu gabe lana egiten utziko duten baldintzarik dagoen ala ez.

HIGIENE PERTSONALA

- **ESKUAK SARRI GARBITUKO DIRA** (ur eta xaboiez), bereziki eztuk eta doministiku egin ondoren edo kutsatuta egon daitezkeen mukizapiak edo gainazalak ukitu edo manipulatu ondoren, aurrerago adierazten denaren arabera.
- Eztul edo doministiku egitean **estali ondo ahoa eta sudurra ukondoarekin** edo behin erabiltzeko zapi batekin, arnasketako sekrezioak atxikitzeko.
- **Erabili eta botatzeko diren mukizapiak** erabili, eta erabili eta gero bota berehala horretarako prestatutako ontzi batera.
- Azazkalak motzak eta zainduta eduki, eta saiatu eraztunik, eskumuturrekorik, eskumuturreko erlojurik edo eskuak ondo garbitzea zaildu dezakeen bestelako apaingarriak ez erabiltzen.
- Saiatu begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen, **eskuek transmisioa errazten dute eta**.
- **Saihestu edozein kontaktu fisiko.**
- **Ahalik eta urrutien egon besteengandik** ($\geq 1,5$ m). Egoera berezietan, hala nola jetzitegi hobietan, sakrifizio kateetan, aukeraketa mahaietan, eta beste batzuetan, **planifikatu zereginak, lanpostuak eta prozesuak, segurtasun tartea bermatzeko.**
- **Higiene neurriak zorrotz beteko dira** elikagaien manipulazio prozesuetan, eta maskara eraginkorrak erabiliko dira, prebentzioko arduradunek gomendatuz gero.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Koronabirus: ESKUAK BEHAR BEZALA GARBITZEKO JARRAIBIDEAK

Coronavirus: INSTRUCCIONES PARA LAVARSE LAS MANOS ADECUADAMENTE



INSTALAZIOAK GARBITZEKO ETA DESINFEKTATZEKO PROZEDURA

- Indartu behar dira lan lekuak eta laneko ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko kontrolak eta antolaketa neurriak. Gomendatzen da gune komunak, hala nola harrera, bilera gelak sarriago garbitzea, bai eta mostradoreak, ateen eskulekuak, altzariak, zoruak, telefonoak eta antzekoak ere. Ekintza horretarako etxeko lixiba erabili daiteke.
- Garbiketa lanetarako, erabili binilozko/akrilonitrilozko eskularruak. Latexezko eskularruak erabiliz gero, gomendatzen da azpian kotoizko eskularru bat janztea.
- Hobetu garbiketa produktuen eta babes ekipamenduen stocka, horiek gabe gelditzea ekiditeko, stock hausturen kasuan: eskuetako xaboa, eskuak lehortzeko papera, eskuetarako gela edo soluzio desinfektatzailea, behin erabiltzeko mukizapiak eta eskularruak, mantalak eta zabor poltsak.



- Gomendatzen da soluzio hidroalkoholiko desinfektatzaileak erositik eta lan lekuetan banatzea, jendearen arretarako postuetan kokatzeko, bezeroek, kanpoko zerbitzuek eta langileek oro har erabiltzeko.

Kutsatuta egon daitezkeen gainazalen garbiketa:

Ohiko desinfektatzaileekin 5 minutuan kontaktuan egon ondoren gelditzen dira inaktibo birus horiek:

- Erabili beti disoluzio prestatu berria.
- Lixiba komertzialekin gomendatutako kontzentrazioak lortzeko:
 - ✓ 50g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml lixiba litro 1 uretan.
 - ✓ 40g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml lixiba litro 1 uretan.
- *Adibidez, "zopa koilara" bat 15ml-ren baliokidea da.
- Lixibarik erabili ezin den gainazaletan etanola erabiliko da, %95eko kontzentrazioan.

Garbitzaileek norberaren babeserako ekipamendu egokia erabiliko dute (eskularruak, mantalak, etab.), egoera bakoitzean ustez dagoen arrisku mailaren arabera, eta ekipamenduak erabili ondoren modu seguruan baztertuko dituzte, eta ondoren eskuak garbituko dituzte.

ANTOLAKETA NEURRIAK:

Kontuan izanda ustategiak batez beste txikiak direla eta bertan lanean ari diren pertsonak gutxi direla, eta jardueraren garapenean pertsonen artean egon daitezkeen kontaktuak asko direnez, funtsezkoa da kontaktuak ekiditeko neurriak muturrera eramatea.

Zuzendaritzari edota gerentziari dagokio ustategian gertatzen den edozein intzidentzia kudeatzea, eta, besteak beste, honako gomendio hauek eduki beharko ditu kontuan:



- Langileak sintomak dituen gaixo batekin kontaktu estua eduki badu, berrogeialdia egingo du etxean, hamalau egunetan, eta sintomen agerpenaren jarraipen pasiboa egingo du.
- Arnasketako sintomak edukiz gero, ez da lanera joango, harik eta koronabirusak eragindako infekzioa duela baztertu arte. Gaixo badago, langilea autobakartu beharko da bere etxean, bere lehen arretako medikuari kontsulta egingo dio, eta hark emandako jarraibideak beteko ditu, erabat osatuta egon arte.
- **Baliabideen eskuragarritasuna:** Osasun alorreko agintaritzek gomendatutako prebentzio neurri guztiak garatzeko behar besteko bitarteko ekonomikoak eta estrategikoak eduki behar dira.
- **Krisi batzordearen koordinazioa:** establezimenduan kasuak daudela deklaratu gero, gomendatzen da batzorde bat antolatzea inplikaturako departamentuetako arduradunekin, kanpoko aholkulariekin (lege eta osasun aholkulariak) eta osasun alorreko agintaritzekin beraiekin.
- **Ekintzen erregistroa:** gomendatzen da hartutako ekintzak liburu edo agenda batean erregistratzea, data, ordua, arduradunak eta bestelakoak zehaztuta, eta gorde sortu daitekeen dokumentazio guztia: garbiketa parteak, mantentze lanen kanpoko kontrolak, zerbitzuen albarabaka, laneko bajak, etab.
- **Behin erabiltzeko zapiak eta** soluzio/paper zapi alkoholdunak eskura jartzea, bai eta oinarrizko informaziorako gune bat ere.
- **Maskarak eskura jartzea.**
- Instalazio komunak, eta igarotzeko eta erabilera pertsonaleko instalazioak **sarriago garbitzea.**
- **Guneen banaketa eta antolaketaren analisia, bai eta lan prozesuena ere,** esaterako gune eta pabiloi itxietako eta prestaketa eta hautaketa geletako lanena, segurtasun tartea bermatzeko. Prozesuko uneren batean hori posible ez bada, erabili maskarak.



- Saiatu gune itxietan, hala nola siloetan, biltegietan eta beste leku batzuetan, jendea batera ez egoten, beti segurtasun tarteak mantenduta.
- Erabilitako mukizapietarako **edukiontzi itxi espezifikoak** jartzea.
- **Hondakinak sarriago kentzea**. Kontu bereziarekin ibili beharko da jarduera horretan, hondakinak eskuekin ukitzea ekiditeko.
- Ahal bada, laneko gune guztien **aire berritzea areagotu**, dela modu naturalean dela behartuta, eta areagotu, baita ere, iragazkien garbiketa.
- Garbiketa agenteak eraginkorrakoak diren beste batzuekin ordezte, hala badagokio.
- Instalazio komunetan, esaterako, jantokietan, atsedeen guneetan, bilera geletan eta komunetan, **5 pertsona baino gehiago batera egotea ekiditeko** banaketa eta antolaketa, beti pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko tarteak mantenduta. Instalazioek neurri horiek bermatzen ez badituzte, instalazioak erabiltzeko txandak programatuko dira.
- **Ordezkapenerako lan poltsak aurreikusiko dira**, langileak behar badira.
- Erakundeko pertsona guztien arteko **lankidetzarik handiena**, prebentzio neurriak hartzean eta emandako gomendioen jarraipena eginda.

KASU POSITIBORIK GERTATZEN BADA JARDUTEKO ETA INSTALAZIOAK DESINFEKTATZEKO PROZEDURA

1. Kutsatutako instalazioak desinfektatu egin beharko dira berriro erabili ahal izateko.
2. Prebentzio zerbitzuek adierazitako NBE egokiekin babestuta egon beharko dira garbitzaileak.
3. Garbiketa eta desinfekzio prozesuan arreta berezia egingo zaie esposizio arrisku handiena eduki dezaketela baloratzen diren instalazioei, hala nola komunei eta gune komunei. Soluzio desinfektatzaileen efektua instalazioetako gune kritikoetara iristea errazteko eta efektua ziurtatzeko,



gomendatzen da aire bidezko dispertsiorako ekipiak erabiltzea
(lainoztagailuak edo antzekoak)

4. Instalazioak desinfektatu ondoren berriro erabiltzeko prest egongo dira.



c. ELIKAGAIEN INDUSTRIAK

Kontuan izanda elikagaien industria asko mikroeteak direla eta ekoizpenean ari diren pertsonak gutxi direla, eta jardueraren garapenean pertsonen arteko kontaktuak asko direnez, funtsezkoa da instalazioetara sartu aurretik kontrola egitea pertsonak kutsatzea ekiditeko, bestela baliteke pertsonak berrogeialdian jartzea eta bakartzea eta langile faltagatik jarduera etetea ekartzea. Horretarako, ustategiak egiaztatu beharko du pertsonak ez direla gaixotasunak kutsatutako inorekin kontaktu estuan egon aurretik, hori gertatuz gero instalaziora sartzea geroratzeko, prebentzio neurri gisa. Kontrol neurri gisa proposatzen dugu:

LANEAN HASI AURRETIKO KONTROLAK

Erakundeko pertsona guztien arteko lankidetzarik handiena behar da, prebentzio neurriak hartzean eta ondoren emandako gomendioen jarraipena egitean.

- Langileek bakartze sozialerako indarrean dauden neurriak kontu handiz bete beharko dituzte, kontaktuak mugatuta eta soilik behar-beharrezkoak direnak edukita. Etxetik lanerako joan-etorriak bakarka egingo dira, ezinbestez egin behar badira.
- Langileak sintomak dituen gaixo batekin **kontaktu estua**³ eduki badu, berrogeialdia egingo du etxean, hamalau egunetan, eta sintomen agerpenaren jarraipen pasiboa egingo du.
- **Arnasketako sintomak** edukiz gero, ez da lanera joango, harik eta koronabirusak eragindako infekzioa duela baztertu arte. Gaixo badago, langilea autobakartu beharko da bere etxean, bere lehen arretako medikuari kontsulta egingo dio, eta hark emandako jarraibideak beteko ditu, erabat osatuta egon arte.

³ Kasu posible, probable edo baieztatuekiko kontaktu estutzat jotzen dira kasu horiek sintomak eduki dituztenean haiekin leku berean bizi izan direnak eta haien leku berean 2 metro baino gutxiagoko distantziara eta gutxienez 15 minutuan egon diren senideak eta pertsonak.



- Hori ez egiteak berrogeialdia, bakartzea eta langile faltagatik jarduerari utzi beharra ekar litzake, eta horrek bereziki larria izan daiteke abeltzaintzako ustategietan, abereen premiei erantzuten jarraitzeko premiagatik.
- Horren guztiaren aurretik, lan arriskuen prebentziorako zerbitzuaren osasun arloak ebaluatu beharko du ea **COVID-19 koronabirusak eragindako infekzioarekiko bereziki sentikorra den langilerik dagoen**, eta langilearen sentikortasun bereziaren izaera ezarri eta prebentziorako, egokitzapenerako eta babeserako neurriei buruzko txostena igorri, bai eta lanerako gaitasuna baloratu ere. Horretarako, kontuan hartuko du ea langilearen osasun baldintzei bere dagokien arriskua handitu gabe lana egiten utziko duten baldintzarik dagoen ala ez.

HIGIENE PERTSONALA

- **ESKUAK SARRI GARBITUKO DIRA** (ur eta xaboiez), bereziki eztuk eta doministiku egin ondoren edo kutsatuta egon daitezkeen mukizapiak edo gainazalak ukitu edo manipulatu ondoren, aurrerago adierazten denaren arabera.
- Eztul edo doministiku egitean **estali ondo ahoa eta sudurra ukondoarekin** edo behin erabiltzeko zapi batekin, arnasketako sekrezioak atxikitzeko.
- **Erabili eta botatzeko diren mukizapiak** erabili, eta erabili eta gero bota berehala horretarako prestatutako ontzi batera.
- Azazkalak motzak eta zainduta eduki, eta saiatsu eraztunik, eskumuturrekorik, eskumuturreko erlojurik edo eskuak ondo garbitzea zaildu dezakeen bestelako apaingarriak ez erabiltzen.
- Saiatsu begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen, **eskuek transmisioa errazten dute eta**.
- **Saihestu edozein kontaktu fisiko.**
- **Ahalik eta urrutien egon besteengandik** ($\geq 1,5$ m). Egoera berezietan, hala nola jendeztegi hobietan, sakrifizio kateetan, aukeraketa mahaietan, eta beste

batzuetan, planifikatu zereginak, lanpostuak eta prozesuak, segurtasun tartea bermatzeko.

- Higiene neurriak zorrotz beteko dira elikagaien manipulazio prozesuetan, eta maskara eraginkorrak erabiliko dira, prebentzioko arduradunek gomendatuz gero.



INSTALAZIOAK GARBITZEKO ETA DESINFEKTATZEKO PROZEDURA

- Indartu behar dira lan lekuak eta laneko ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko kontrolak eta antolaketa neurriak. Gomendatzen da gune komunak, hala nola harrera, bilera gelak sarriago garbitzea, bai eta mostradoreak, ateen eskulekuak, altzariak, zoruak, telefonoak eta antzekoak ere. Ekintza horretarako etxeko lixiba erabili daiteke.
- Garbiketa lanetarako, erabili binilozko/akrilonitrilozko eskularruak. Latexezko eskularruak erabiliz gero, gomendatzen da azpian kotoizko eskularru bat janztea.



- Hobetu garbiketa produktuen eta babes ekipamenduen stocka, horiek gabe gelditzea ekiditeko, stock hausturen kasuan: eskuetako xaboia, eskuak lehortzeko papera, eskuetarako gela edo soluzio desinfektatzailea, behin erabiltzeko mukizapiak eta eskularruak, mantalak eta zabor poltsak.
- Gomendatzen da soluzio hidroalkoholiko desinfektatzaileak erosi eta lan lekuetan banatzea, jendearen arretarako postuetan kokatzeko, bezeroek, kanpoko zerbitzuek eta langileek oro har erabiltzeko.

Kutsatuta egon daitezkeen gainazalen garbiketa:

Ohiko desinfektatzaileekin 5 minutuan kontaktuan egon ondoren gelditzen dira inaktibo birus horiek:

- Erabili beti disoluzio prestatu berria.
- Lixiba komertzialekin gomendatutako kontzentrazioak lortzeko:
 - ✓ 50g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml lixiba litro 1 uretan.
 - ✓ 40g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml lixiba litro 1 uretan.
- *Adibidez, "zopa koilara" bat 15ml-ren baliokidea da.
- Lixibarik erabili ezin den gainazaletan etanola erabiliko da, %95eko kontzentrazioan.

Garbitzaileek norberaren babeserako ekipamendu egokia erabiliko dute (eskularruak, mantalak, etab.), egoera bakoitzean ustez dagoen arrisku mailaren arabera, eta ekipamenduak erabili ondoren modu seguruan baztertuko dituzte, eta ondoren eskuak garbituko dituzte.

ANTOLAKETA NEURRIAK:

Kontuan izanda elikagaien enpresa asko batez beste txikiak direla (mikroeteak) eta bertan lanean ari diren pertsonak gutxi direla, eta jardueraren garapenean pertsonen artean kontaktuak egon daitezkeenez, funtsezkoa da kontaktuak ekiditeko neurriak muturrera eramatea.



Zuzendaritzari edota gerentziari dagokio ustiatégian gertatzen den edozein intzidentzia kudeatzea, eta, besteak beste, honako gomendio hauek eduki beharko ditu kontuan:

- Langileak sintomak dituen gaixo batekin kontaktu estua eduki badu, berrogeialdia egingo du etxean, hamalau egunetan, eta sintomen agerpenaren jarraipen pasiboa egingo du.
- Arnasketako sintomak edukiz gero, ez da lanera joango, harik eta koronabirusak eragindako infekzioa duela baztertu arte. Gaixo badago, langilea autobakartu beharko da bere etxean, bere lehen arretako medikuari kontsulta egingo dio, eta hark emandako jarraibideak beteko ditu, erabat osatuta egon arte.
- **Baliabideen eskuragarritasuna:** osasun alorreko agintaritzek gomendatutako prebentzio neurri guztiak garatzeko behar besteko bitarteko ekonomikoak eta estrategikoak eduki behar dira.
- **Krisi batzordearen koordinazioa:** establezimenduan kasuak daudela deklaratu gero, gomendatzen da batzorde bat antolatzea inplikaturako departamentuetako arduradunekin, kanpoko aholkulariekin (lege eta osasun aholkulariak) eta osasun alorreko agintaritzekin beraiekin.
- **Ekintzen erregistroa:** gomendatzen da hartutako ekintzak liburu edo agenda batean erregistratzea, data, ordua, arduradunak eta bestelakoak zehaztuta, eta gorde sortu daitekeen dokumentazio guztia: garbiketa parteak, mantentze lanen kanpoko kontrolak, zerbitzuen albarabaka, laneko bajak, etab.
- **Behin erabiltzeko zapiak** eta soluzio/paper zapi alkoholdunak eskura jartzea, bai eta oinarrizko informaziorako gunek bat ere.
- **Maskarak eskura jartzea**
- Instalazio komunak, eta igarotzeko eta erabilera pertsonaleko instalazioak sarriago garbitzea.



- Guneen banaketa eta antolaketaren analisia, bai eta lan prozesuena ere, esaterako gune eta pabiloi itxietako eta prestaketa eta hautaketa geletako lanena, segurtasun tarteak bermatzeko. Prozesuko uneren batean hori posible ez bada, gomendatzen da maskarak erabiltzea.
- Saiatu gune itxietan, hala nola siloetan, biltegietan eta beste leku batzuetan, jendea batera ez egoten, beti segurtasun tarteak mantenduta.
- Erabilitako mukizapietarako **edukiontzi itxi espezifikoak** jartzea.
- **Hondakinak sarriago kentzea**. Kontu bereziarekin ibili beharko da jarduera horretan, hondakinak eskuekin ukitzea ekiditeko.
- Ahal bada, laneko gune guztien **aire berritzea areagotu**, dela modu naturalean, dela behartuta, eta areagotu, baita ere, iragazkien garbiketa.
- Garbiketa agenteak eraginkorrak diren beste batzuekin ordeztzea, hala badagokio.
- **Instalazio komunetan**, esaterako, jantokietan, atsedeen guneetan, bilera geletan eta komunetan, **5 pertsona baino gehiago batera egotea** ekiditeko banaketa eta antolaketa, beti pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko tarteak mantenduta. Instalazioek neurri horiek bermatzen ez badituzte, instalazioak erabiltzeko txandak programatu dira.
- **Ordezkapenerako lan poltsak aurreikusiko dira**, langileak behar badira.
- Erakundeko pertsona guztien arteko **lankidetzarik handiena**, prebentzio neurriak hartzean eta emandako gomendioen jarraipena eginda.

KASU POSITIBORIK GERTATZEN BADA JARDUTEKO ETA INSTALAZIOAK DESINFECTATZEKO PROZEDURA

5. Kutsatutako instalazioak desinfektatu egin beharko dira berriro erabili ahal izateko.
6. Prebentzio zerbitzuek adierazitako NBE egokiekin babestuta egon beharko dira garbitzaileak.



7. Garbiketa eta desinfekzio prozesuan arreta berezia egingo zaie esposizio arrisku handiena eduki dezaketela baloratzen diren instalazioei, hala nola komunei eta gunekomunei. Soluzio desinfektatzaileen efektua instalazioetako gunekritikoetara iristea errazteko eta efektua ziurtatzeko, gomendatzen da aire bidezko dispartsiórako ekipoak erabiltzea (lainoztagailuak edo antzekoak)
8. Instalazioak desinfektatu ondoren berriro erabiltzeko prest egongo dira.



5. ERREGISTROA

Langilearen adierazpena, irakurri egin duela eta ados dagoela esanez: protokolo hau irakurri eta ulertzen dela egiaztatzeko, protokoloaren ardura berea ere badela onartzeko eta protokoloaren ezarpenarekin konpromisoa hartzen duela adierazteko izenpetzen duen dokumentua.

6. ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Gaztelania:

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/2020/protocolo-de-vigilancia-epidemiologica-para-coronavirus-2019-ncov/>

[www.mscbs.gob.es › ccayes › documentos › Procedimiento COVID 19](http://www.mscbs.gob.es/ccayes/documentos/Procedimiento_COVID_19)

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Procedimiento COVID 19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Procedimiento_COVID_19.pdf)

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/PrevencionRRLL COVID-19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/PrevencionRRLL_COVID-19.pdf)

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Manejo domiciliario de COVID-19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Manejo_domiciliario_de_COVID-19.pdf)

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

<http://www.euskadi.eus/informacion-y-recomendaciones-generales-de-actuacion-en-euskadi-ante-el-nuevo-coronavirus/web01-a2gaixo/es/>



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

Euskara:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitza/-/2020/2019-ncov-koronabiruserako-zaintza-epidemiologikorako-protokoloa/>

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria/>

<http://www.euskadi.eus/koronavirus-berriaren-aurrean-euskadin-jarduteko-informazioa-eta-gomendio-orokorrak/web01-a2gaixo/eu/>